

AGURRA

“Hernani” 2018/19 urtekaria duzue eskuartean: 25.a. Ale berezia da, aurreko 24 urtekarietan argitaratutako artikuluen aukeraketa egin eta bilduma osatu baitugu. *“Hernani” (1992-2017)* bilduma honetan jasota daude elkarrizketak, historia, ondarea, oroimena, emakumea eta beste hainbat eta hainbat gairekin lotutako artikulua, guztiak ere gure herria ezagutzeko oso baliagarriak.

“Hernani” urtekaria borondatezko lanetan oinarrituta egin da 25 urteotan; hori dela eta, egile eta kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu beren ekarpenengatik, Hernani hobeto ezagutzeko ezinbestekoak izan direlako. Eta aipamen berezia egin nahi diogu Txuso Gomez udal artxiboko arduradunari, urte hauetan guztietan egin duen lan eskerga eta oparoa eskertzeko. Pertsona hauek guztiek ahalbidetu dute argitalpen aberasgarri hau gure eskuetara iristea.

Hernaniko Udala